

1EM2 ELEKTROMEKANIKA

G4. IBILGAILU DESBERDINEN SEGURTASUN ETA EROSOTASUN SISTEMAK MANTENTZEN DITU

Iraupena: 40 ordu

Taldeak: 4 eta 5 pertsonako 4 talde.

**1.412 Seat Leonen beroketa
sistemaren eta aire girotuaren
analisia**

Hasiera data: 2024/09/10

Amaiera data: 2024/11/13

Antolaketa: Modulo artekoa

Erronka

Seat Leoneko beroketa sistemaren eta aire girotuaren pieza guztiak identifikatu eta argazkia atera. Argazkitatutako guztia txostenan sartu eta azaldu. Amaitzeko, egindako guztiaren azalpena egingo duzue txostenaren laguntzarekin. Pieza bakoitzaren ezagutza sakona daukazuela adierazteko hurrengo galderei erantzun beharko diezue:

- Zer da?
- Zein da bere eginkizuna?
- Zergatik egin da horrela?
- Nola egiten du lan sistemaren barruan?
- Nola matxuratu ahal da?

Baliabideak

Ondorengo baliabideak izango dituzue erabilgarri:

- Ikasgela eta internetera sarbidea dokumentazioa prestatu eta kontsultatzeko
- Tailerra eta bertako ekipamendu guztia

Entregatuko beharreko lanak

Txostena eta aurkezpena taldeka egingo duzue.

- 1) TXOSTENA: erronkaren notarako balio du.
 - a) Tailerrean egindako lanen laburpena Power Point, Canva edo antzerako programetan eginda.
 - b) Azalan gaitasunaren izena, erronkaren izena, taldekideen izena, irakaslearen izena eta data.
 - c) Bigarren orrian aurkibidea, praktika bakoitzaren orria identifikatuz.
 - d) Hurrengo orrietan tailerrean egindako laburpenak praktika bakoitzeko antolatuta. Data, argazkiak eta testua egongo da. Informazio tekniko egokia agertzea garrantzitsua da.
 - e) Argazkiak, tailerrean edo eskolan egindakoak. Kanpoko argazkiak eranstean baditugu irudiaren sortzailea identifikatu behar da.
 - f) Formatu librea; hala ere, formatua mantenu behar da txosten osoan.
 - g) Azken orria hutsik.

2) AURKEZPENA: erronkaren notarako balio du.

- a) Talde bakoitzak tailerrean egindako atal baten aurkezpena egingo du.
- b) Aurkezpenak gutxi gora behera 20 minutu iraungo du.
- c) Aurkeztutakoa: prozedura (zer egin zenuten), sistemaren identifikazioa eta sistemaren funtzionamendua. Aurkezpena teknikoa eta zehatza izatea ebaluatuko da.
- d) Aurkezpena amaitzerakoan beste taldeek galderak egiteko aukera izango dute. Irakasleak ere galderak egingo ditu.

Taldekatzea eta antolaketa

Taldekatzea ondorengoa izango da:

1	Hodei, Unai, Ander, Younes, Amets	
2	Luken, Asier, Murillo, Manex	
3	Andoni, Matias, Leire, Haritz	
4	Beñat, Alain, Aratz, Aimar	

Astea:

	Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00			EMSE		
9:00 – 10:00			EMSE		
10:00 – 11:00		EMSE			
11:30 – 12:30		EMSE			
12:30 – 13:30					
13:30 – 14:30					

Asteazken gehienetan tailerrean arituko gara.

Astearte batzuk klasean emango ditugu eta beste batzuk tailerrean.

Erronkak eskatzen duen beste atalen bat